

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA

Prozedura ireki bidezko deialdia, Arabako Foru Aldundian jarritako SAPen lizentzien mantentze zerbitzua, Standard Support modalitatean, kontratatzeko

1. Erakunde esleitzaila

a) Erakundea: Arabako Foru Aldundia

b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Zerbitzu Orokorren Idazkaritza Teknikoa

c) Espediente zenbakia: 14/17

2. Kontratuaren xedea

a) Xedearen azalpena: Arabako Foru Aldundian jarritako SAPen lizentzien mantentzea, Standard Support modalitatean.

b) Gauzatzeko lekua: Gasteiz

c) Kontratuaren iraupena: 2017ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31 arte.

3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era

a) Izapidetzea: ordinarria

b) Prozedura: irekia; ez da onartuko lizitatzailerik aldez aurretik.

c) Esleitzeko era: irizpide bakarra (prezioa).

4. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua:

Zenbatekoa, guztira: 283.287,54 euro (234.121,93 euro gehi BEZa —49.165,61 euro—)

5. Bermeak:

Behin-behinekoa: ez da eskatzen

Behin betikoa: esleipen zenbatekoaren ehuneko 5 (BEZa aparte).

6. Agiriak eta argibideak eskuratzea

www.araba.eus (kontratatzailearen profila)

Erakundea: Zerbitzu Orokorren Idazkaritza Teknikoa

Helbidea: Samaniego, 14 - 6. solairua (Ogasunaren eraikina)

Herria eta posta kodea: 01008 Gasteiz

Telefonoa: 945 181818; luzapena: 54581

Faxa: 945 181516

7. Kontratistaren berariazko betekizunak.

a) Sailkapena (taldeak, azpitaldeak eta kategoriak): ez da eskatzen

b) Ekonomia eta finantza arloko kaudimena eta gaitasun teknikoak: ezaugarrien taulako "O" puntuak adierazitakoak.

8. Eskaintzak aurkeztea

a) Epealdia: 2016ko abenduaren 14a (40 egun natural, iragarkia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera bidaltzen den egunetik aurrera).

b) Aurkeztu behar diren agiriak: ezaugarrien taulan, administrazio agirietan eta agiri teknikoetan adierazitakoak.

c) Aurkezteko lekua:

Erakundea: Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra

Helbidea: Probintzia plaza, 5, behea.

Herria eta posta kodea: 01001 Gasteiz

Azken ordua: 14:30 edo 12:30, ordutegi berezia dagoen eguna baldin bada (2016an ordutegi berezia duten egunak: urtarrilaren 5a, abuztuaren 4a, 8a, 9a eta 10a, eta irailaren 12a).

Posta bidezko eskaintzarik aurkezten bada, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorren 80. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. Faxe (posta bidezko eskaintzak aurkezteko bakarrik) 945 181754

d) Lizitatuzaileak eskaintzari eutsi behar dion epea: 3 hilabete

9. Eskaintzak irekitzea

a) Irekitzeko lekua:

Erakundea: Arabako Foru Aldundiaren Ogasunaren eraikineko bilera gela.

Helbidea: Samaniego kalea 14 – 6. solairua

Herria eta posta kodea: 01008 Gasteiz

b) A gutun azalak irekitzeko data: 2016ko abenduaren 20a.

c) Ordua: 13:00.

10. Bestelako informazioak: Zerbitzu Orokorretako Idazkaritza Teknikoa

11. Iragarki gastuak: esleipendunaren kontura

12. Iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidalitako eguna: 2016ko azaroaren 4a.

13. Hala dagokionean, deialdiaren inguruko argibideak ageri diren atari informatikoa edo web orria, zeinean agiriak eskuratu daitezkeen:

www.araba.eus (kontratatuzailearen profila)

Gasteiz, 2016ko azaroaren 4a

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta
Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR*

*Eskuordetzan, Zerbitzu Orokorretako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua
EDUARDO LÓPEZ DE AGUILETA DÍAZ*